

EUSKADIKO ADINEKOEN BATZORDEA. ALTXOR 7.0

Zero bilera 2021-05-20 (Bideokonferentzia)

Bertaratuen zerrenda

Eusko Jaurlaritz

- Marian Olabarrieta (Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzako zuzendaria)
- Rafael López-Arostegui (Gizarte Politiken aholkularia)
- Saioa Landa (Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzako teknikaria)

Erakundeak

- Santi Larburu (EUSKOFEDERPEN)
- Inma Sánchez (EUSKOFEDERPEN)
- Karmele Peñagaricano (EUSKOFEDERPEN)
- José Ezkerra (LARES)
- Raket Cruz (Las Cuatro Torres)
- Miren Larrea (Helduak ADI!)
- Javier Trocóniz (SECOT)
- José Agustín Arrieta (AGIJUPENS)

Bileraren hasieran jakinarazi denez, Euskadiko Adinekoen Batzordean lantalde bat eratzea da helburua, Altxor 7.0 zerbitzua diseinatzeko prozesua haste aldera Euskadiko Elkarrizketa Zibileko Mahaian ordezkaturata dauden pertsona nagusien sareekin eta adineko pertsonen erakundeekin —aurrerago ere sartu ahal izango dira kideak lantalde horretan—.

Azaldu denez, adineko pertsonen erakundeekin prozesua hasteko erabaki horrek zentzu osoa dauka Mahaiaren berezko dinamikaren barruan, elkarrizketa zibilaren printzipioan oinarritzen baita, eta, gainera, ez baita eragozten elkarrizketa zibila erakundeen arteko elkarrizketarekin

uztartzeko aukera, Open Government Partnership (Gobernu Irekirako Aliantza) metodologiaren esparruan, zerbitzu honen diseinuari eta gidaritzari buruz aurreikusitakoari jarraikiz. Hori dela eta, azaldu denez, Gobernantza Sailarekin biltzeko data bat finkatu behar da, bertan zehaztuko baita prozesua nola antolatu.

Jarraian, partaideek honako galdera ireki hauen gainean egin dituzten ekarpenak bildu dira:

Zure ustez, behar ditugun baliabide guztiak bagenitu zerbitzu bat diseinatu eta garatzeko adineko pertsona guztiari informazio eta orientazio pertsonalizatua eskaini diezaiezen nor bere bizi-proiektua garatzeko eta ekimen kolektiboak martxan jartzen laguntzeko...

1. Zerbitzu horrek zer ezaugarri izan beharko lituzke?
2. Pertsona nagusiek parte hartu beharko ote lukete zerbitzua emateko? Hala bada, nola parte hartu beharko lukete?

Jarraian datoz bilerara bertaratu diren pertsonen galdera horien gainean eman dituzten ekarpenak, laburbilduta:

1. GALDERA

- Proiektuaren esparruan lau alderdi nagusi jorratu behar dira; egitura fisikoa, giza baliabideak eta finantzaketa, antolaketa-eredua, eta eman nahi diren zerbitzuak:
 - Egitura fisikoari dagokionez, lehendik dauden egiturak erabil litezke, besteak beste tamaina handiko gizarte-zentroak. Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuetan dauden gizarte-zentroak hautatzeko aukera aipatu da. Adierazi denez, gainera, Altxor 7.0 ez da izan behar konektatuko proiektu bat, baizik eta zentro horietan txertatuko proiektua. Halaber, elkarteen laguntza ere izan behar du. Gasteizen kasuan, Las 4 Torres-en egoitza izan liteke alternatiba.
 - Aipatu denez, giza baliabideak eta finantzaketak sortu ohi dituzte arazo gehien, hain zuzen ere inbertsio ekonomiko handia behar dutelako. Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzaren esanetan, Euskadi Next 2021-2026 delatik lor daitezkeen funtsak gorabehera, 100.000 €-ko partida bat erreserbatu da zerbitzua diseinatzeko lehen fase hau garatzeko. Beraz, badago zerbitzu hori martxan jartzeko konpromisoa, Europako finantzaketa egon ala ez.
 - Antolaketa-ereduari dagokionez, eredu mistoaren alde egin da, adineko pertsonen batzorde bat ezarriki dauden langileak babesteko.

- Bulego pilotuetatik eskainiko diren zerbitzuei dagokienez, baieztatu denez, beharrezkoa da horiek oso ondo zehaztea, bai eta pertsona nagusiek zerbitzuotan nola parte hartuko duten finkatzea ere.
- Edonola ere, azaldu denez, adineko pertsonen sentsibilizazioa eta prestakuntza landu beharra dago (zein informazio bilatzen den eta zergatik, kontuan hartuta bizitzaren etapa honetan izaten den ikuspegiaren arabera direla erantzun horiek). Pertsonak beren askotariko profilen arabera parte hartuko dute zerbitzuan (bizi-ibilbideen aberastasuna, ibilbide profesionalak...).
- Azpimarratu denez, beharrezkoa da erakargarriak eta askotarikoak izan behar diren gaiak hautatzeko irizpide bateratuak ezartzea, eskaini nahi den informazio-mota zehaztea eta informazio hori mugatzea. Pertsonak erdigunean jartzen dituen arreta izan behar da informazioaren jomuga.
- Informazioa ematean, beraz, sarean egin beharko da lan informazio-baliabide desberdinekin, publiko nahiz pribatuekin, baina modu integralean (gai baten gaineko informazio-baliabide espezifikoak bereizita) eta espezializatuan, biztanleria osoari zuzendutako baliabideetatik bereizita (besteak beste, Zuzenean zerbitzuetatik edo herritarren arreta-bulegoetatik).
- Kasuren batean, informazioaz gain, orientazioa ematean laguntza-prozesu bat garatu liteke, bitartekaritza ere eskainiz, batez ere diskriminazio-egoeretan eta babes osagarria beharrezkoa izan daitekeen bestelako egoeretan. Hala ere, administrazio-izapideak egitea ez litzateke horren barruan sartuko.
- Era berean, aipatu denez, pertsonen bizi-proiektuak eremu desberdinetatik garatu daitezke, esaterako osasunaren eremutik, eta, gainera, egun dauden programetako batzuei buruzko informazioa eman. Osakidetzak kontsultetatik kanpo azterketak egiteko aukera dela-eta, honako hau jakinarazi da: 2018ko maiatzean, Adinekoen Arreta Plana (AAP) argitaratu zen, 70 urteko edo gehiagoko pertsonen dimentsio anitzeko balorazioa egiteko eta jarduketaprozedura bat zehazteko, egungo gomendioetan oinarrituta, zahartze osasuntsua, gaixotasunen prebentzioa eta funtzionaltasunaren iraunkortasuna sustatze aldera, betiere lehen mailako arretaren errealitatera egokituta. Ondorioz, ahalik eta lasterren identifikatuko lirateke "hauskortasun-egoeran" sartzen arituko liratekeen pertsonak. Azaldu denez, komenigarria litzateke osasun-zerbitzuari eskatzea AAP programa berriz has dezala, pertsona nagusiei balorazioak egin eta horren arabera jardun ahal izateko.
- Nolanahi ere, adierazi denez, proiektu hau, osasun-alderdiez harago, adineko pertsona nagusiei (menpekoei eta autonomoei) zerbitzua emateko sortu da.

- Baliabide hori eredu soziosanitarioan sartuko litzateke, eta, ondorioz, lehendik dauden baliabide batzuk eduki beharko lirateke, besteak beste zentro soziosanitarioak, eguneko zentroak, gizarte-zentroak... Horrekin lotuta, horietan dauden datu-base desberdinak bateratzeko beharra aipatu da. Gaineratu denez, eredu soziosanitarioa eredu soziokulturala bezain garrantzitsua da.
- Bestalde, adierazi da interesa dagoela gizarte-zentroetan prozesu hauek garatzeko dinamikak sor daitezen.
- Azaldutakoaren arabera, Altxor 7.0 lotuta dago Generation 60/100 arloan sartutako gainerako proiektuekin: Bizitza Betea – Trebakuntza Plana eta gizarte-zentroen eraldaketa-prozesurako laguntza. Era berean, SECOTen Erretiro Aktiboko Programarekin dagoen lotura azpimarratu da.
- Kontuan hartuta administrazioek eta elkarteek ez dituztela ezagutzen batzuek eta besteek eskaintzen dituzten zerbitzuak, bulego pilotu horiek informazio-gune eta konexio-zentro moduan eratzeko aukera aipatu da. Nolanahi ere, azpimarratu denez, bulego horien bidez ez dira bikoiztu behar gaur egun eskaintzen diren zerbitzuak. Erraztasunak eta informazioa emateko zentro izateaz gain, eremu sozialean nahiz eremu sanitarioan eskaintzen diren zerbitzuak koordinatzeko zentroak ere izan beharko lirateke.
- Era berean, zerbitzu hori egoitzekin eta eguneko zentroekin lotzeko beharra planteatu da.
- Nolanahi ere, nabarmendu denez, proiektu hau 60 urtetik gorako pertsona guztiei zuzentzen zaie, beren adina eta egoera edozein dela ere, 70 urteren bueltan aldatu egiten baitira 60 urte inguruan ezarritako bizi-proiektuak (hortik Altxor 7.0). Pertsona nagusien belaunaldi desberdinetako informazio espezializatua eta pertsonalizatua emateko erreferentzia moduan kokatu behar da, beraz, proiektu hau, pertsona horiek beren bizi-proiektuak gara ditzaten, ahalik eta autonomia handienarekin.
- Azkenik, benchmarkinga egiteko eta lehendik ezarrita dauden eta erreferentziatzat har daitezkeen eredu posibleak aztertzeke aukera aipatu da.

2. GALDERA

- Aho batez uste da adineko pertsonen zerbitzua emateko orduan parte hartu behar dutela, honako alderdi hauen arabera:

- Boluntario moduan parte hartu behar dute, kontuan hartuta beharrezkoa dela konfiantzazko eta eskumenen autopertzepzioko giroa sortzea, informazioa eman ahal izateko. Ondorioz, ezinbestekoa da prestakuntza eta gaitasuna ematea.
- Administrazio publikoekin batera diseinatutako prozesuak garatu behar dira, lurralde bakoitzean dagoen berezitasunaren ondorioz.
- Kontuan hartuta adinkideen kontseiluek dutela eraginik handiena, partaidetza hori adineko pertsonen elkarteen bidez antolatu daiteke, batez ere erretiratuen elkarteen bidez. Azaldu denez, pertsona nagusiek zerbitzua ezagutzea izan behar da elkarre horien erronka, administrazioena ere baden bezala.
- Azpimarratutakoaren arabera, pertsona nagusien partaidetza ez litzateke mugatu behar bulego horietan pertsona nagusiak egotera; horrez gain, zerbitzua sortzeko prozesuan ere parte hartu beharko lukete, hau da, bai zerbitzua diseinatzean, bai zerbitzua ematean.

Hasierako hausnarketa horren ostean, eta lehen deskribatutako ekarpenak egin ondoren, Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak, Euskadiko Adinekoen Batzordearen eskariari erantzunez, agiri bat aurkeztu du, etorkizuneko zerbitzuaren lehen zirriborroa jasotzen duena (gidaritza-fasean). Agiri horren arabera, online zerbitzu zentralizatua izango da Altxor 7.0, eta bulego semipresentzialak ere izango ditu, pertsona nagusien bizi-proiektuetan laguntzeko eta haien talentua sustatzeko, informazioa eta orientazioa emanaz haien bizi-zikloan barrena interesekoak zaizkien eremu guztietan, eta, halaber, ekimen kolektiboak sustatuz. Agiri hori akta honekin batera bidaliko zaie lantaldea osatzen duten pertsoneri, haren gainean lan egiten jarraitzeko, elkarlanean.

Era berean, eraturako lantaldearekin batera lan egin beharko da adineko pertsonen lagin bati zuzendutako inkesta bat diseinatzen, interesa pizten duten arlo eta eduki zehatzak identifikatze aldera. Nolanahi ere, bulego pilotuak martxan jartzen direnean, eta adineko pertsonak horietara hurbiltzen diren heinean, berariaz ikusiko da zein informazio eskatzen duten, eta, ondorioz, eskaintzen diren datuak eta edukiak horren arabera eguneratuko dira.

Azkenik, hiruzpalau atera berriz ere bilduko da lantaldea. Pentsatu da bilera horretan Emakundek ere parte har dezakeela, proiektuaren diseinuan genero-ikuspegia txertatzen laguntzeko.

14:30ean amaitu da bilera.